



**SALUD MENTAL  
BURU OSASUNA**  
EUSKADI *Fedeafes*

**05**

GENERO  
BERDINTASUNA



## GARAPEN JASANGARRIRAKO 5. HELBURUA



Elkarte hauekin  
lankidetzan egindako  
dokumentua:



Babesleak:

**EUSKO JAURLARITZA**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA



**GOBIERNO VASCO**

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



## 5. GJH

# GENERO BERDINTASUNA

Helburua genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea da. Xede honek jorratzen dituen alderdietako batzuk honako hauekin lotuta daude: emakumeen eta nesken aurkako diskriminazio- eta indarkeria-mota guztien amaierarekin; zainketen eta ordaindu gabeko etxeko lanen aintzatespenarekin; erantzukizun partekatuekin; aukera-berdintasunarekin; emakumeen parte-hartze oso eta eraginkorrarekin, eta bizitza politiko, ekonomiko eta publikoko maila guztietan erabakiak hartzeko lidergo-aukera berdintasunaren, eta ugalketa-eskubideekin.

Genero-desberdintasunak, diskriminazioak eta indarkeria matxistak emakumeen eta nesken buru osasunean eragiten dute. Horregatik, Buru Osasuna Euskadik eta haren elkarteek konpromisoa hartu dute 5. GJHko hainbat eremutan, eta, bereziki, buru osasun arazoak dituzten emakumeen ahalduntzearekin, diskriminazioa ezabatzearekin eta buru osasun arazoak dituzten emakumeen aurkako indarkeriarekin lotuta.

Emakumeen aurkako indarkeria matxista gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-harremanen adierazpen larriena da gure gizartean.

Ikusi [www.fedeafes.org](http://www.fedeafes.org) webgunean 2022an argitaratutako 'Buru Osasuna Euskadi federazioko elkarteak eta Garapen Jasangarriko Helburuak' dokumentua

## 2030 Agendaren goiburua: 'Inor atzean ez uztea'

### BURU OSASUN ARAZOAK DITUZTEN EMAKUMEEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO DATUAK

- Emakumeek parte-hartze txikiagoa dute Buru Osasuna Euskadiko eta horien elkarteetako **zerbitzu eta programetan**.
- Parte-hartzearen defizita, batez ere **enpleguaren** eremuan.
- Baliabide eta zerbitzu gutxiago erabiltzeak **gizartean parte hartzeko** aukerak kentzen dizkie emakumeei.

### BURU OSASUN ARAZOAK DITUZTEN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN DATUAK

- Buru-nahasmendu larria duten **4 emakumetik 3k** beren bizitzako uneren batean indarkeria jasan dute familian edo bikotean.
- **Buruko nahasmendua duten emakumeen %80k** bikotekideak eragindako indarkeria pairatu dute bizitzako uneren batean.
- Buru nahasmendu larria duten emakumeen **%26k** sexu-indarkeria larria jasan dute haurtzaroan.

## BURU OSASUNA EUSKADIK ETA BERE ELKARTEEK 5. GJHari EGINDAKO EKARPENAK

---

- Profesionalentzako genero-**prestakuntzako** programa espezifikokoak.
- **Berdintasun-plana** erakunde guztietan, lau urtean behin berrikusita.
- Emakundek Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako **erakunde laguntzaile aitortzea**.
- **Hizkuntza inklusiboa** sustatzea.
- **Jazarpen-protokoloak** jasotzea berdintasun-planean.
- **Ordainsarien auditoria** egitea, erakundeen ordainsari-sistemak, zeharka eta osorik, ordainsarien arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa benetan aplikatzen duen egiaztatzeko beharrezkoa den informazioa lortzeko.
- **Kontziliazio-politikak** erakunde guztietan, lan-malgutasuna eta erraztasunak.
- Buru osasun arazoak dituzten gizonen eta emakumeen arteko **berdintasunari buruzko ikerketa espezifikokoak**.
- Buru osasun arazok dituzten emakumeen aurkako **indarkeriari buruzko ikerketa espezifikokoak**.
- **Erakundeekin lankidetzan aritzea**, desgaitasuna duten emakumeentzako materialak lantzeko.
- **Emakume taldeak** elkarreetan.
- **Emakumeen berdintasunerako eremua** elkarrean.
- Landa-eremuan buru osasun arazoak dituzten emakumeen ahalduntzeari buruzko Espainiako **Hub Genera proiektuan parte hartzea**.
- Espainiako Osasun Mentaleko Konfederazioko **Emakumeen Sarea**.
- **Prestakuntza, nahasmendu mentala duten emakumei** buruzko hitzaldiak hainbat erakundetan (jabekuntza eskola feministak, Emakunde) eta hirugarren sektoreko erakundeetan.
- Hainbat arlori buruzko **prestakuntza emakumeentzat** (berdintasuna, hizkuntza inklusiboa, indarkeria antzemateko modua, maitasun erromantikoa).
- **Maskulinitate berriei buruzko tailerrak**, buru osasun arazoak dituzten gizonentzat.
- Buru osasun arazoak dituzten **emakumeen enplegua sustatzea**.
- **Hainbat ardatz diskriminatzaile jasaten ari diren eta buru nahasmendua duten emakumei laguntzea** (espetxean dauden emakumeak, migratzaileak, etab.)
- Buru osasun arazoak dituzten emakumei dagokienez, **eskubide-urraketak salatzea eta ikusaraztea**.
- Mobilizazio-egunetan **jarduera espezifikoekin inplikatzeko**.
- **Sentsibilizazioan** berariazko fokua ([www.emakumeaetaburuosasuna.org](http://www.emakumeaetaburuosasuna.org), emakumeen profilak Facebooken eta Instagramen, bideoak, liburuxkak, argitalpenak, zabalkundea, etab.)
- Emakumei buruzko **jardunaldiak**, hainbat gairi buruzkoak.

## 5. GARAPEN HELBURUARI LAGUNTZEKO XEDE ETA KONPROMISOAK

---

- Artatutako emakumeen ehunekoa gizonen ehunekoarekin orekatzea.
- Buru osasun arazoak dituzten emakumei zuzendutako ekintzen kopurua urtero handitzea.
- Buru osasun arazoak dituzten emakumeen aurkako indarkeria matxista ikusaraztea.
- Erakundeen programa, zerbitzu eta jardueretan parte hartzen duten emakumeen ehunekoa handitzea.
- Familia-zaintzaren esparruan gizonen erantzunkidetasuna eta parte-hartzea sustatzeko ekintzak egitea.